

RENE CASSINEN PENTSAKERA

René Cassinen pentsakera, hain aberatsa, lerro zenbaitetan laburbil ditakea ? Ez dut uste. Haatik hari nagusi bat nabaritzen zaio, eta horren agertzeraz lehiatuko naiz.

Legelaria, legegizona, Montesquieuk finkaturiko hiru botereen banaketa (legegilea, exekutiboa eta judiziala) gain-gainetik peretxatzen duena, politikatik bazter egon da, eta 1908an Aix en Provenceko fakultatea utziz geroztik, gizadi osoaren abokatutzan ari da.

Bere bizitza xede bakar baten zerbitzuko jarri du, pertsonaren eskubideak mundu mailan finkatu, legeztatu eta nazioartean zaindu nahiz. Berezi Giza Eskubideen Deklarazio Unibertsalaren aita dugu.

Pertsona bakoitza sakratua zaio. Horren eskubideak Estatuaren eta mugen gainetik jarri behar dira. Horretarako Estatuak ez dugu absolututzat onartu behar. Horren indarra mugatu behar da, boterea gainetik eta petiko erakunde batzuekin banatuz.

Gainetik Estatuak bere nagusigoaren zati batzu nazioarteko justizia bati utzi behar dizkio ; pertsona bakoitzak horren legeri eta auzitegiari dei egin dezake, jendearen funtsezko zuzenak zangopilatzen direnean. Justizia horren zerbitzuko legoke nazioarteko polizia bat, ongi armatua.

Beharretik, Cassinek « probintziak » indartzen ikusi nahi lituzke, honako izkirio honek erakusten duenez : « *Cassinentzat, euskaldun edo bretoi nortasunaren garapenak Europaren bateratzea ez du oztopatzen. Aitzitik biak bat datoz. (...). Europa egiazki egin dadin, dio Cassinek, Estatuaren indar soberakina hautsi behar da eta probintzien indarra gotortu (...).* » (Agi, 303. or.).

Heren munduarentzat, deskolonizatzea aldarrikatzen du 1945eko udan, Japoniak amore emanez munduko bigarren gerla burutu denean. Hona zer idazten duen abuztuaren 22tik 27rako « Ici Paris » astekarian : « *Kolonien denbora joana da, eta lekua utzi behar die autonomia lokal eta federalei.* »

Orokorki populuen autodeterminazio eskubidearen alde dago, baina bemo garrantzitsu batekin : *Estatu mikroskopikoen ugaritzea ez du gustukoa, haien ezin bizi eta inperialismoen janizagatik.* (Agi, 302-303 or.). Aterabide federalistak nahiago ditu.

Goebbels batek baitzioen « *ikazkina etxean nagusi* » zela, printzipio absolutu horren aitzia Cassinek nahi du nazioarteko erkidegoak sudurra eta eskuak sar ahal ditzan Estatu batzuetako barne arazoetan, Estatu horiek giza eskubideak zangopilatzen dituztenean.

Estatuaren absolutismoaren aurka, nahi luke boterea batasun federal batzuetan parteka dadin, Estatu bakoitzaren barnetik eta kanpotik. Pertsona jartzen du Zuzenbidearen muinean. Legea gizonaren / emakumearentzat da, eta ez gizona / emakumea Legearentzat.

Bere laneko bizitza osoa Zuzenbidearen irakasteari eman duen horrentzat, giza eskubideetarako bide guziak hezkuntzatik iragaiten dira, bai eta iritzi publikoaren sostengutik. « *Bere laneko bizitza zuzenbide irakasle bezala hasirik, René Cassinek burutu du giza eskubideen Instituto bat eraikiz, hor ikas ahal dezaten mundu osoko unibertsitario guziek.* » (Agi, 323. or.).

« 1942ko abuztuaren Londreseko Chatham House delakoan, emakume diplomadunen Biltzarrean, hitzaldi bat egiten du « unibertsitateen eginbidez munduaren birrerakitzeari. » Goi irakaskuntzak gerlatik landa bete beharko duen leku premiatsua zehazten du : « *Unibertsitateek, dio abuztuaren 17an, oroz gainetik mundua moralki sendatzen lagundu beharko dute. Irakasleek, arrazoiaren legea gogoan, zibilizazioaren obra gorenez haziak,*

beren bizitza espirituko altxor « unibertsalen » zerbitzuko ezarri behar dute, altxor horiek aberri subiranoen gainetik, jende guzien ondasun komuna direlarik. » (agi, 163. or.).

Hemen Cassinek Montesquieuren pentsakera batekin bat egiten du : *« Ene nazioari on zaion gauza batek beste bati kalte egin lezakeela jakinez, ene printzeari ez nezaioke proposa, gizona bainaiz frantsesa izan aitzin, baitezpada gizon naizelako, eta zorte soilez frantses. »* (Agi, 163. or.).

Cassin *« nazioarteko zuzenbide komun »* baten alde dago, zibilizazioa zain dezakeen lege supranazional baten alde.

« Legea denentzat berdina da, dio. Botere publikoen eta epaileentzat balio du gizabanakoen bezala. Debekatzen ez duena ez da epantxatu behar. » (Giza eskubiden Deklarazio unibertsalerako Cassinen xedeko V. artikulua. Marc Agik aipatua, 242. or.).

« Auzitegi gorenaren gizadiaren kontzientzia etikoarena da, beraz aburu publikoarena. » (Agi, 69. or.).

Bere kideen defentsari emaniko bere bizitza borrokalari osoa laburbilduz, *« egiazko boterea etikaren boterea da, kutsadura politiko guzietarik bazter. »* (Agi, 309. or.).

René Cassinentzat, absolutua ez da Estatua, sakratua ez da Estatua, baina gizadia orokorrean eta pertsona bakoitzean, eta bururaino joanez hauxe dio : *« Estatuaren eginbide bakarra, giza eskubideen zaintzea da. »*

Cassin eta Gandhi

Gizadiaren bi heroi horiek konparatu behar ditut. Lehenik abokatuak dira biak, eta biek bizitza giza eskubideen defentsari eman dute.

Gandhik saindutasunaren ospea du. Nihau fededuna izanez, katolikoa zehazki, gizonaren eskualde hori ezin dut gutietsi. Alta bada, ene erlijioan bederen, saindua ez da pertsona perfektu bat, eta Gandhiren akats eta hutsak ontsa ikusten ditut haren bizitza publikoan (bizitza pribatua niretzat ezin hunkitua delarik). Jainkoa bera baita perfektu den bakarra, Cassinek ere ahuleziak ukan dituzke, eta denborarekin ezgutuko dizkiot, ez badut gutiziatzen ere. Mementoko eta beste probarik ezean, iduri zait ez dela hainbat kezkatu palestinar populuaren zorteaz, hain baitzuen kezkatzen bere ustez Israelen bizitza mehatxatzen zuen arriskuak, Estatu hori arabiar erresuma auzoekin gerla hotzean zegoelarik.

Gandhi Hego Afrikan, beltzak bazter utziz, bere indiar herritarrek legezko bazterketaren aurka zaintzeari mugatu zen. Gero India libratzen lagundu zuen azkarki, eta biziki da : orduan hiru ehun miliun biztanle zituen, eta orai miliar bat eta hiru ehun milioikin, lur osoko bost jendetarik bat edeitan du.

Baina 1931an Mussoliniri bisita egin baitzion, fazismoa ez zuen kritikatu nahi ukan. Alta bada frantses idazle handia zen Romain Rolland adiskide bakezaleak horretara bulkatu zuen. Eta 1939ko otsailean, genodizioaren bezperan, judu aleman ezinago bortizki pertsegituei aholku inozoak, lekuz kanpokoak, eman zizkien erresistentzia pasiboaren alde, Hitler britainiar etxekojaun idorxko bat izan balitz bezala ! Hain inozent agertzea ere bada zerbait ...

Cassinek ez du saindu mediatikoaren baitan gerta daitekeen maltzurkeria izpi hartarik batere, ama Teresak, sœur Emmanuellek, abbé Pierrek, eta Gandhik berak ene ustez bazutelarik. Saindu mota horrek galdera batzu ez ditu entzuten, erantzun batzuei ez die kasurik egiten, oztopo batzu ez ditu ikusten, zentzuzko zalantza batzuei ez entzunarena egiten die ; epantxu larrian, Jainkoari eta denborari fidatzen dira, eta egiaz, arazo anitz noizbait nolabait zuzentzen dira, erosioz eta higaduraz bezala...Jainkoak bizkarra zabal baitu, saindu batzuek haren nahia edonoiz aipatzen dute, Jaunak egunero telefonatzen balie bezala, eta ene uste apalean ez ditu hain usu deitzen ! Nik neuk haren borondateaz bi puntu baizik ez ditut ezagutzen, baina haiek badakizkit, judu eta kristau eskritura santuek zinez azpimarratzen

dituztelako : Jainkoak maite gaituela, eta ordainez gure maitasuna gura duela, egoki denez : horretan haren idurikoak gara, eta beraz hura gure antzekoa ; bigarren manua, lehenaren idurikoa : elkar maita dezagun, eta hori zinez hastial zaigu praktikan, lagun urko eta protsimoa ez baitago zeruan, baina hurbilean, egunerotasunean : haren telefono deia maiz ukan dezakegu, Jainkoarena ez bezala, zerbitzu baten eskatzeko, edo gogokoa ez dugun lan batera behartzeko. Manu latza bigarren hori, zinez ! Eskapurik ez digu batere uzten : Moisen Lebitikoa bi aldiz agertzen da, behin herritarren alde, beste behin arrotzen alde, eta gainera Nazareteko Josua batek zinez azpimarratu digu, bigarren manu eginez, lehenaren idurikoa, eta kasik honen berdina...

Gainera, gure bizkar zakuan aski astuna ez balitz bezala, erlijio gidari batzuek (haatik ez Gandhik) misteriozko lege berri andana gaitza gehitzen die, arras beharrik gabe nik uste, hamarrekin aski bagenukeela iduri baitzait !

Cassin zuzen-zuzena dabila, Baionako edo Nizako espartinetan, zuberotar dantzari bat bezain lerden eta zut, ez oldarkor, baina klarki, bere diplomazia mugatuz jendeen eta hitzen errespetura. Gizadi osoarentzat borroka egin du etengabe, profeta laiko batek bezala, esku huska, erlijiozko saindutasunaren makilari bermatu gabe, agerian bederen, nahiz Moisenenganik asko ikasi dukeen, Jesusenganik ere agian, isilka, Gandhik agerian egiten zuena ...

Saindutasunari dagokiola, judu pentsakera ez ote da katolikoa eta hinduista baino neurtuagoa ? Azken bi erlijioak sainduz aberatsak ditugu, israelitak aldiz jende zuzen eta justuen aipatzera mugatzen dira. Cassin justu unibertsal bat da, denen eta bakoitzaren zerbitzuko, Estatuaren eta mugen gainetik.

Gandhi bezala, bortizkeriaren etsaia da, haatik ez absoluturaino. Puntu horrez bere ikuspegia ezin argiago agertu du *Bulletin du CRM* aldizkarian, 1968ko abenduan, Marc Agik 307. orrialdean aipatzen duen bezala. Hor pazifismo huts eta bakuna osoki arbuiazen du, teoriarik eta praktikan, populu borrokalarien jokoa egiten duelakoan. Gandhiren « *satiagraha* » delakoa nekez onargarria zaio mundu mailan, gizona eta gizadia diren bezala ezagutzen. Munstroei bidea zabalik utz lezake. « *1936an, Hitlerren aitzia aski orduz higitu gabe, gerlaren piztera bulkatu dugu.* » Nazioarteko indar baten ekintza armatu labur eta zehatza onartzen du, Alemania nazia bezalako Estatu terrorista baten arrazoirik ekartzeko hasieratik. Ez du pentsu, Gandhik bezala, Hitler bat bortizkeriarik gabeko erresistentzia batez garaitzen edo zuzentzen ahal zenik. Cassin entzun bazuten 1933an Goebbelsek SDNean egin zuen lazgarriko hitzaldiaren ondorengo, edo bederen ondorengo bizpahirur urteetan, balinba munduko bigarren gerla ekidinaren (*éviter*) zuten, bere 60-70 milioi hilekin...

Enezat René Cassin printzipioz Mahatma Gandhi baino unibertsalagoa litzateke, baina europar baten ikuspuntua dut hor. Ordainez, Cassinen itxura ez da hain erromantikoa, haatik puntu horretan pastoralak mirakuluak egin ditzake. Baina zergatik hautu bat egin behar nuke hain bikainak eta maitagarriak diren bi jende horien artean ? Sailkapen bat egin behar litzateke pertsonen artean, lehiaketako autoak balira bezala ? Ez dut uste ! Cassinek eta Gandhik unibertsalerako bi etorbide erakusten dizkigute, azken geltokian elkartuko direnak : batetik erlijiositate zabal bat, bestetik laiktasun onbera bat. Kulturen talkan ez dut sinesten, baina bai horien elkarriketaren eta elkarlanean. Beraz Cassin eta Gandhiren artean ez dut hauturik eginen, biak berdin miresten baititut. Baina gaur azken hitza bego Niza eta Baionako seme handiari.

Cassin jauna, errespetuz eta bihotzez, boneta, gapelua, txapela kendurik, ohorezko makila luzatzen dizut. Haatik ohore guzia niretzat dago, bai eta gaur kantatzen zaituztenentzat.

Jean-Louis Davant